

1.- Onespen eskaera, toki erakundeen guneetan arte eszenikoetako ikuskizunak alde batetik bestera mugitzeko Musika eta Arte Eszenikoen Institutu Nazionalak sustatuta estatuak duen "Platea" programari udal honek erakutsi zion atxikimendua berritzekoa.

Txostena: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Musika eta Arte Eszenikoen Institutu Nazionalak sustatzen duen Platea Programari udal honek erakutsi zion atxikimendua berritzeari buruzkoa.

Eibarko udala, 2014. urtean, toki erakundeen guneetan arte eszenikoetako ikuskizunak alde batetik bestera mugitzeko estatuak sustatzen duen Platea Programan sartu zen. INAEMek berriro atera du Platea programaren deia 2015. urterako, aurrekoaren helburu berberekin:

- Hiritarrei, estatu osoan, kalitatezko arte-eskaintza anitza bermatzea.
- Toki erakundeen aldetik arte eszenikoeako ikuskizunen programazioa biziberri- tzea.
- Autonomia Erkidegoen arteko kultura-komunikazioa sustatzea.

1.- Solicitud de aprobación de la renovación de la adhesión al Programa Estatal de Circulación de Espectáculos de Artes Escénicas en Espacios de las Entidades Locales "Platea", promovido por el Instituto Nacional de Artes Escénicas y Música.

Informe sobre la renovación de la adhesión al Programa Platea promovido por el Instituto Nacional de las Artes Escénicas y la Música del Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.

El Ayuntamiento de Eibar se adhirió en el año 2014 al programa estatal de circulación de espectáculos de Artes Escénicas en Espacios de las Entidades Locales "Platea". El INAEM ha vuelto a convocar el programa Platea para el año 2015, con los mismos objetivos:

- Garantizar a los ciudadanos una oferta artística diversa y de calidad en todo el Estado.
- Reactivar la programación de espectáculos de artes escénicas por las Entidades Locales.
- Fomentar la comunicación cultural entre las Comunidades Autónomas.

- Estatu osoan kalitatezko arte-eskaintza zabaltzea.
 - Azken hamarkada hauetan eraiki edo zaharberritu diren toki-ekipamendu eszenikoak aprobetxatzea.
 - Spainian sortzen dena eta genero artistikoen aniztasuna bultzatzea.
 - Publikoaren artean kultura-azturak sortzeko eta eusteko bideak erraztea.

 - Tokietako antzoki publikoen kudeaketa autosostengatua sustatzea.
 - Udal programatzaileen eta kultura kudeatzaileen profesionalizatzea eta espezializazioa indartzea.
- Ampliar la oferta artística de calidad en todo el Estado.
 - Aprovechar los equipamientos escénicos locales construidos o rehabilitados en las últimas décadas.
 - Impulsar la creación española y la diversidad de géneros artísticos.
 - Facilitar la creación y el sostenimiento de hábitos culturales entre los diferentes públicos.
 - Fomentar la gestión autosostenida de los teatros públicos locales.
 - Reforzar la profesionalización y especialización de los gestores culturales y programadores municipales.

Eibarko Udalari 2014. edizioko Platea Programan parte hartzeak ekarri dizkion emaitzak onak izan direnez; udalerriko arte eszenikoen programazioa aberasten lagundu duenez; 2015eko edizioan parte hartzeko baldintzak joan zen urtearen antzekoak direnez; deialdiaren baldintzek dituena bete egiten denez; hori dena kontuan hartuta, egoki ikusten da programa horri erakutsitako atxikimendua berritzea.

Dado que los resultados de la participación del Ayuntamiento de Eibar en el Programa Platea en su edición 2014 han sido positivos, que han contribuido a enriquecer la programación de artes escénicas del municipio, que las condiciones para la participación en la edición del 2015 son similares a las del año anterior y que se cumplen con los requisitos de la convocatoria, se considera oportuna la renovación de la adhesión a dicho programa.